

"JAUTARKOL" (G. B.)

POR ANARBE

Aurten, Otsailla'ren 2'an, errenderitarrok, euskal literaturan genun gizonik argienetakoa galdu dugu, Jauregi ta Etxenagusia'tar Luis "Jautarkol".

"Una triste fecha" izen buruaz, andik egun batzutara, idatzi zun artikulu bat "La Voz" 'en gure erritar, Esteban Los Santos Barrenetxea, idazle gazteak.

Bai, egun tristea, apaiz jatorra bezin olerkari bikaña galdu bai zun Errenderi'k egun ortan.

1896'gn. garagarrilla'ren 19'an gure erri ontan jaioa. Bere apaiz ikaskuntzak Comillas'en egiña zan. Bere apaizgo lanak, Salinillas de Buradon (Araba), Altzo'n, Anoceta'n, Aratz-Matxinbenta'n, Urrestilla'n eta azkenik, il zaigun errian, Zaurautz'en egin zitun.

Naiz erri asko aldatu edo agian orregatik, benetan maite zun bere jaioterria, onela ziolarik:

"Errenderia, nere aurtzaro zorioneko
seaska kutun beroa:
nere barrendik biotza igeska gaur zuregana
pozez urturik dijoa."

Erria bezin maite zun bertan sortutako bertsolari andiena, Xenpelar ere.

Maitasun orrek eraginda utzi zigun "Xenpelar bertsolaria" liburuxka, bertsolari andieren bizitz eta bertsorik ederrenak bilduta.

Xenpelar'en omenaldia zala-ta, amaika aldiz jo bear izan dugu gure "Jautarkol" argiak egindako liburura. Beste iturri-rik nun arkitu?

Gure "Jautarkol" 'ek euskeraganako maitasuna biotz-barranean zeraman.

Euskera'k daraman malda-berakoak samindurik, aipatu dugun "Xenpelar bertsolaria" bere liburu orren itzaurrean onela dio: Ez da urtebete, Txina'ko Aita Mixiolari euskaldun batek esaten zirala: "Mundu guziaren barrera ibillia nauzu.

Erri atzeratuak bezela, erririk aurretanuenak ere, ezagutzen ditut. Ez det ikusi erri bat bere izkera jatorra maite ez duanik: erri guzietako gurasoak, beren aurtxoei, aurreko guracoetatik artutako izkuntza maitea arretaz erakusten sumatu ditut Gure Erri Ontan. Euskal-Erri maitean bakar-nakarririk lotsagarrikeri au ikusi det: gurasoak beren umetxoei euskerarik erakusten ez saiatzea".

Apaiz zintzo bezela, galbidean dijoan neskatoari ipiñitako olerkiak bikañak deritzaizkigu:

Ez egin negar... Zure bidean
ibiltzen ikasi:
maitasun-kate gezurrezkoetik
garaiz ein igesi.

Orrela Jaunak jarriko dizu
egunen batean
uztarri-lagun maitasuntsua
begien aurrean.

Eta Goi-argiz ezautzen dezun
zure ezkon-laguna,
izango zaizu maitasun-kabi
ta uztarri leguna.

An-emenka, bere olerkiak irakurtzen ari gera, zein baño zein ederragoak arkitzen ditugu: bere "Barne-izketa" olerkiak auxe dio:

Ez jun, ene biotza
baratzera
alako loretxoa
usaitzera:
pozoidun intza dauka
ta ilko zera.

Mendi tontor artara
gaur, biotza,
ez igo, an baitago
gaur mirotza:
antxe dezu zure nai
eriotza.

Il berri zan eta lagun andi izango zun "Lizardi" olerkariari ere onako abek eskeintzen dizkio:

Irten biotz-kabitik, bertso negariak,
bertan ito baño len negar-iturriak.
Udaberri-aurreko enara gaxoak
Il-obi-bazterrean negarrez jaiok...!
Zure oroiz, Lizardi, ta zuri begira
sortu zaizkit, ta zutat bakarrikan dira.
Il-obian zurekin bizi nai lukete...
Emaiezu txoko bat, zu esnatu arte.

BIOZKADAK



1929'an, JAUTARKOL'ek argitaratu zuan bere leudabiziko olerki sortara azala.

Ikusten dezutenez poeta goenetakoa genun "Jautarkol", bere lan guziekin bilduma bat egitea ez litzake lan txarra, geroak aaztu ez dezan...

"Xenpelar bertsolaria" bere liburuan, eskari bezela onela dio: "Orain, gure Errenderi maite orretan ainbat kale berri irikitzen ari diran garai auetan, ez al litzake egoki izango oietako kaleen bati "Xenpelar-kalea" izena ematea?"

Bera il baño len bere nai ori bete genun here erritarrok eta gure erriko kale ederrenetako batek "Xenpelar" izena darama.

Bere azkenetako lana noski, Camilo José Cela'ren "Pascual Duarte" euskeratzea izango zan. Itxuraz, galizitar idazle ospetsuak nai bizi zeukan bere nobela gure izkuntzan itzulia ikusteko. Zarautz'ko Unzurrunzaga jaunari gutun mamitsu batean onela agertu zion bere naia: "Me ilusiona el imaginarme a mi Pascual Duarte vestido, algún día, con el viejo y noble ropaje de la lengua euskara".

Ta gure "Jautarkol" andia, urtetan aurrera ta gaxo —bainan beti langille— izan da itzulpen ori egin duna.

Euskera arloan langille purrukatua izan da gure erritar euskel-idazle ta olerkari ospetsua. Agian, guda zitala zala-ta, bear bezela here erriak ezagutu gabe joan zaiguna.

Amaitzeko ere here olerki sortara joko dugu eta berak beste bateri eskeñitakoaz azken eman lantxo oneri:

"Ixildu da betiko ereskin bikaña,
eusko-mendietako txindor atsegiña...
Jaunak eman zigun ta Jaunak kendu digu.
Naigabez zure naia. Jauna, gurtzen degu".